

13. ORDENANTZA FISKALA, ESTOLDERIA ZERBITZUAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak estolderia zerbitzua emateagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz.

II. ZERGAGAIA

2. ARTIKULUA

1. Honako hau da Tasa honen zergagaia:

a) Udal estolderia sareari lotzeko hartunek betebeharreko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko Udalak burutzen duen jarduera teknikoa eta administratiboa.

b) Udal estolderia zerbitzuaren bitartez, iraizkinak, euri-urak, ur-beltzak eta hondakin urak bideratzeko zerbitzua ematea eta ur horiek araztea

2. Ez dira Tasa honen karpeko izango ez eraitsita edo aurri egoeran deklaratura dauden finkak ez orube izaera dutenak ere.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

1. Honako hauek dira subjektu pasibo zergadunak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. eta 35. artikulua aipatzen dituen erakundeak.

2. Eraikinen jabea izango da zergadunaren ordezkari subjektu pasiboa, eta zerbitzuaren onuradun diren erabiltzaileei jasanarazi ahal izango die, hala badagokie, berak ordaindutako kuota.

IV. ARDURADUNAK

4. ARTIKULUA

a) Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40. eta 41. artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek izango dute subjektu pasiboari dagozkion zerga-obligazioen gaineko betebeharrak solidarioa.

b) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan xedatuaren arabera, ondoko hauek izango dira erantzule subsidiario: elkarteetako administratzaileak eta sindikoak, kiebra, lehiaketa, elkarte eta edozein entitateko kontuhartzaile zein kitatzaileak.

V. ZERGA KUOTA



5. ARTIKULUA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Erroldan finka bakoitzak duen zerga oinarriari **ehuneko 0,22** aplikatuta ateratzen den emaitza izango da zerga kuota.

VI. SORTZAPENA

6. ARTIKULUA

1. Zergagaia eratzen duen udal jarduerari hasiera ematean sortuko da tasa eta tasa ordaindu beharra. Udalaren jarduera hasitzat emango da:

a) Subjektu pasiboak hartunea egiteko lizentzia eskaria egiten duen egunean bertan, eskaria egin egiten badu.

b) Udal estolderia sarean hartunea egiten den egunean. Tasa hau ordaindu beharra sortuko da hartunea egiteko lizentzia lortu ala ez lortu, eta baimena lortzeko bideratutako administrazio-espeditentari hasiera emateaz gain.

2. Iraizkinak, euri-urak, ur-beltzak eta hondakin urak bideratzeko zerbitzua derrigorrezkoa da udalerriko finka guztietarako, euren fatxadek estolderia duten kale eta plazetara edo errekarara ematen badute eta finkatik sarera 200 metrotik beherako distantzia badago. Tasa sortu sortu egingo da nahiz eta interesatuek sarera hartunerik ez egin.

VII. AITORPENA, LIKIDAZIOA ETA SARRERA

7. ARTIKULUA

1. Finkaren titulartasunean aldaketa gertatzen denetik hurrengo hilabeteko azken egunera bitartean egingo dituzte subjektu pasiboek Tasa honetako erroldan Alta eta Baja aitortenak Altak eta Bajak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo likidazioa egiten denetik aurrera izango dute eragina aitortenek. Hasieran, administrazioak bere kabuz sartuko ditu finkak erroldan, sareko hartunea egiteko lizentzia ematen duenean.

2. Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko ezarritako epeetan eta aldi berean likidatu eta kobratuko dira Tasa honengatik eskatutako kuotak.

3. Hartunea egiteko dagokion lizentzia eskaria egingo du zergadunak eta, behin lizentzia onartu ondoren, udaleko zergabiltzaitza zerbitzuek bidezko den likidazioa egingo dute eta horren berri jakinaraziko zaio zergaduanari Dirubilletari buruzko Foru Erregelamendu Orokorrean ezarritako moduan eta epean.

VIII. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.



IX. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.